Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
08. Ekonomia Sustapena ***08. Promoción Económica***	**01.** Zerbitzu Nagusiak **01.** *Servicios Centrales*	**920.110** Foru plan informatikoa **920.110** *Plan Informático Foral*

Programa honek Bizkaiko Foru Aldundiaren azpiegitura informatiko guztia sortzearen eta mantentzearen berezko jarduera eta kostu guztiak hartzen ditu barruan, saileko administrazio unitate guztiei kudeaketan eraginkortasun handiagoa bermatzen dizkieten tresna informatikoak emateko beharrezkoak direnak, eta erabakiak hartzeko orduan informazio kalitatezkoa eta fidagarria erraz lortzen laguntzen dutenak.

Testuinguru horretan, Lantik, S.A., sozietatearekiko lankidetza eta koordinazioa funtsezkoak dira korporazio kultura bat sortu eta berorri eusteko (Bizkaiko Foru Aldundiak horrexetarako sortu du sozietate informatiko hori).

Azpiegitura informatikoa ez ezik, Egitarauak beste jarduera batzuk ere barru hartzen ditu zenbait sistema antolatzaile ezartzeko, sistema horiek beharrezkoak baitira harturiko soluzio informatikoei eusteko, eta alderantziz.

Jarduerak honakoak dira:

Epe luze, ertain eta laburrerako planifikazioa; planifikazio horretan hauxe sartzen da:

- Politika teknologikoa zehaztea eta sailaren plan teknologikoaren ardatz estrategiko nagusiak ezartzea, baita horren epe ertainerako eta epe luzerako helburuak ere.
- Ekimen estrategiko nagusiak eta ardatz estrategikoekin lerrokatzea gauzatzea.
- Ekimen estrategikoak garatzea saileko garapen informatikoen bidez.
- Onetsitako proiektuen burutzapena kontrolatzea, LANTIK, ABMPra bideraturiko garapen-eskaeren bidez eta, hala denean, sozietate horrek azpikontrataturik.

Este Programa aglutina todas las actividades y costos inherentes a la creación y mantenimiento de la Infraestructura Informática con que la Diputación Foral de Bizkaia para dotar a las distintas unidades administrativas del Departamento de herramientas informáticas que garanticen una mayor eficacia y eficiencia en la gestión y para la obtención de una manera simple de información de calidad y fiable para la toma de decisiones.

En este contexto, la colaboración y coordinación con Lantik, S.A., Sociedad Informática que la propia Diputación Foral de Bizkaia ha creado a este fin, es fundamental al objeto de fomentar y mantener una cultura corporativa.

Además de la gestión de la infraestructura informática también comprende las actividades derivadas de la implantación de sistemas organizativos necesarios para soportar las soluciones informáticas adoptadas y viceversa.

Estas actividades se pueden agrupar en:

Planificación a largo, medio y corto plazo, que comprende:

- Definición de la política tecnológica y establecimiento de los principales ejes estratégicos del plan tecnológico departamental así como de sus objetivos a medio y largo plazo.
- Elaboración de las principales iniciativas estratégicas y de su alineamiento con los ejes estratégicos.
- Desarrollo de las iniciativas estratégicas mediante proyectos de desarrollos informáticos departamentales.
- Control de ejecución de los proyectos aprobados a través de peticiones de desarrollo derivadas a LANTIK, S.A.M.P. y en su caso subcontratadas por ésta.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
08. Ekonomia Sustapena ***08. Promoción Económica***	**01.** Zerbitzu Nagusiak **01.** *Servicios Centrales*	**920.110** Foru plan informatikoa **920.110** *Plan Informático Foral*

- Urteko aurrekontua egitea eta horren jarraipena egitea.
- Adierazle estrategikoek emandako emaitzak ebaluatzea; horiei esker, plan teknologikoa berrikusi eta egokitu daiteke urtean.
- Sailen Informazio Sistemen Ikerketa; horrela, informazio integraleko sistema bat eskaini ahal izango zaie Sailaren menpeko zerbitzu eta enpresei.
- Ezargarri berrien garapena (ezargarriok sailen informazio sisteman sartuko dira) eta ustiapenetan egindako aplikazioen mantentzea.
- Beharrizanen azterketa eta beharrezko ekipamenduaren eskurapena, aukeraturiko soluzioei eutsi ahal izateko.
- Egitarauaren kudeaketa, jarraipena eta kontrola, bai ekonomiaren aldetik, bai helburuak lortzeari dagokionez.
- Informazio kopuru handietarako integraturiko zerbitzu informatikoak eta datuen finkapena Erakundean.
- Aplikazio informatikoak erabiltzeko beharrezko atzipenak eta baimenak kudeatzea, jarraitzea eta kontrolatzea.
- Sailaren aplikazioen inbentarioaren kudeaketa. Hauexek biltzen ditu: Funtzionalitateen eta bertsioen kontrola, ildo estrategikoekin lerrokatzea, kalitate kontrola, ondoriozko arriskuen kudeaketa, etab.

Laburbilduta, honako arlo hauek nabarmendu ditzakegu:

- Elaboración del presupuesto anual y seguimiento del mismo.
- Evaluación de los resultados arrojados por los indicadores estratégicos que permiten anualmente la revisión y adecuación del plan tecnológico.
- Estudio de Sistemas de Información Departamentales en orden a ofrecer al conjunto de Servicios y Empresas dependientes del Departamento un sistema de Información integral.
- Desarrollo de nuevos aplicativos, integrándolos en el sistema de información departamental y mantenimiento de las aplicaciones en explotación.
- Análisis de necesidades y adquisición del equipamiento necesario para soportar las soluciones elegidas.
- Gestión, seguimiento y control de la ejecución del programa a nivel económico como de la consecución de los objetivos.
- Servicios informáticos integrados para grandes volúmenes de información y consolidación de datos a nivel de Institución.
- Gestión, seguimiento y control de los accesos y permisos necesarios para utilización de aplicaciones informáticas.
- Gestión del inventario de aplicaciones departamental que incluye: control de funcionalidades y versionado, alineamiento con la directrices estratégicas, control de calidad, gestión de riesgos derivados, etc.

De un modo resumido podemos destacar las siguientes áreas:

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
08. Ekonomia Sustapena ***08. Promoción Económica***	**01.** Zerbitzu Nagusiak **01.** *Servicios Centrales*	**920.110** Foru plan informatikoa **920.110** *Plan Informático Foral*

1) Espedienteen Sistema Orokorraren eta Irudien Artxibo Elektronikoaren atalaren arloa.

2026. urteko jarduketa nagusiak hauek izan dira:

- N5 (identifikazioa), N2 eta N8 zeharkako aplikazioetan JP txertatzen jarraitzea; horrela, ALFRESCO gordailu elektroniko aurreratura sartu ahal izango da, dokumentu-motei eta ALFRESCO-IMAGEren tamainari mugarik ipini gabe.

- JP erabiltzen duten sailetako organiko batera birbideratutako beste sail batzuetako irudiei (EKIN sarrera-kudeatzailean alta emandakoak) alta emateko aukera.

2) Mikroinformatikaren arloa.

2026an, Windows 11 sistema operatiboa onartzen ez duten 17 ordenagailu eramangarrietako batzuk aldatu dira. 2027an, ordenagailuak eguneratzen jarraituko da.

3) Tramitazio elektronikoa eta Web orrien garapena.

Hainbat urtez geldirik egon ondoren, 2024an abian jarri da JQ-JK motako bulego birtualak BFAren EGOITZA ELEKTRONIKORA migratzeko prozesua. 2025ean, lehenengo jarduketen migrazioa egin da, eta, 2026an, bigarren jarduketak migratu dira.

2026. urtean, ekoizpen-arloko laguntzaren baten justifikazioak izapidetzen hasiko dira.

2027an, eragozpen teknikorik ez badago, laguntzak modu integralean izapidetu nahi dira Egoitza Elektronikoaren bidez.

1) Area del aplicativo Sistema General de Expedientes y Archivo Electrónico de Imágenes.

A lo largo del año 2026 las principales actuaciones han sido:

- Continuación del desarrollo de la integración de JP en las aplicaciones transversales N5 (identificación), N2 y N8, de modo que se pueda acceder al repositorio electrónico avanzado ALFRESCO, sin limitaciones de tipo de documentos y tamaño que tiene ALFRESCO-IMAGE.

- Posibilidad de dar de alta imágenes (dadas de alta en el gestor de entradas EKIN) de otros departamentos redireccionas a un orgánico de los Departamentos que utilizan JP

2) Area de microinformática.

En 2026 se han ido cambiando algunos de los 17 portátiles que no soportan el sistema operativo Windows 11. Durante el 2027 se seguirán actualizando.

3) Tramitación electrónica y desarrollo de páginas Web.

Después de varios años de paralización, en 2024 ha comenzado el proceso de migración de las oficinas virtuales tipo JQ-JK a la SEDE ELECTRÓNICA de la DFB. En el año 2025 se ha realizado la migración de las primeras actuaciónes y durante 2026 se han migrado las segundas actuaciones.

Durante el año 2026 se empezarán a tramitar las justificaciones de alguna ayuda en el entorno de Producción.

Durante 2027, la intención es tramitar las ayudas, de forma integral, a través de la Sede Electrónica, sino hay impedimientos técnicos.

Eta, azkenik, ordezkarien erregistro elektronikoa arautzen duen foru-dekretua onartu eta gero, kasuan kasuko organoaren zigilu elektronikoa sortzea onetsi da. Hala, zabaldu egiten bide juridikoa hainbat prozedura automatizatzeko funtzionalitate berriak garatzea.

Y finalmente, tras la aprobación del decreto foral regulador del Registro electrónico de representantes, y la aprobación de la creación del sello electrónico de órgano correspondiente. Con ello, queda juridicamente abierto el desarrollo de nuevas funcionalidades de automatización de diversos procedimientos,

4) Hizkuntza normalizazioa.

2026. urterako, funtzionarioek garatzen dituzten barne-aplikazio guztietan bi hizkuntzak ofizialak sartzen jarraitzea proposatzen dugu. Horien artean nabarmendu behar ditugu, euren garrantziagatik, intraneteko web orriak eta berariazko aplikaziorik ez duten gutxiagoko erabilerako tramitazioetan. Aldi berean, elebitasunaren politikari eutsiko zaio LANTIKek beren beregi garatzen dituen aplikazioetan, bai barruan erabiltzen diren aplikazioetan bai kanpoan banatu eta Bizkaiko herritar, enpresa eta elkarteek erabiltzen dituzten horietan.

4) Normalización lingüística.

Para el 2027 nos proponemos continuar con la introducción del bilingüismo en las aplicaciones de carácter interno desarrolladas por el funcionariado, entre los que destacamos por su importancia las páginas web de la intranet, y en tramitaciones de utilización más escasa que carecen de aplicaciones específicas. Asimismo se mantiene la política de bilingüismo en las aplicaciones desarrolladas específicamente por LANTIK, tanto para uso interno como para su distribución y utilización externa por los ciudadanos, empresas y asociaciones de Bizkaia.

5) Dirulaguntzen eta hitzarmenen kudeaketa integralerako aplikazioak garatzea.

2026an, lanean jarraituko da dirulaguntza-programen parametrizazio aurreratuaren hedapenaren garapen osoa egiteko; barnean sartuta egongo da BKONekiko konexioa, ekintza-lerroen arteko barne-transferentziei dagokienez. Ekintza-ildo desberdinei lotutako deialdien kudeaketarekin lotutako funtzionalitateak programatzeko eta ekoizpenean jartzeko lanak ere amaituko dira.

2026an, saileko aurrekontu-kudeatzaile berri bat garatuko da, urteko aurrekontu-zikloaren kudeaketa-fase guztiak barnean hartzeko: V110 eta V111 izapidetzea aurrekontuaren aurreko urtean; urteko aurrekontua kargatzea; DPArekiko lotura; aurrekontua betearaztea eta haren aldaketak, eta urteko aurrekontua ixtea eta DPAren ebaluazioa egitea.

5) Desarrollo de aplicaciones de gestión integral de subvenciones y convenios.

En 2027 se continuará con el desarrollo completo del despliegue de la parametrización avanzada de los programas de subvenciones, incluyendo la conexión con BKON en cuanto a transferencias internas entre líneas de acción. También concluirá la programación y puesta en producción de las funcionalidades relacionadas con la gestión de convocatorias asociadas a las diferentes líneas de acción.

En el 2027 se desarrollará un nuevo gestor presupuestario departamental que cubra todas las fases de gestión de un ciclo presupuestario anual: tramitación del V110 Y V111 durante el año anterior al del presupuesto, carga del presupuesto anual, conexión con el PES, ejecución del presupuesto y sus modificaciones, y cierre del presupuesto anual y evaluación del PES.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
08. Ekonomia Sustapena ***08. Promoción Económica***	**01.** Zerbitzu Nagusiak **01.** *Servicios Centrales*	**920.110** Foru plan informatikoa **920.110** *Plan Informático Foral*

6) Sailean jakintza kudeatzea errazten duten aplikazioak garatzea.

2026ko abenduan, saileko enpresen kudeatzailea (bezeroekiko harremanak kudeatzeko softwarea, ingelesezko siglen arabera) garatzeko proiektuaren 1. bertsioa amaituta egongo dela aurreikusten da. 2027an, hura hedatzen jarraituko da: askoz funtzionalitate gehiago izango ditu eta ESEPEren bertsio berrira konektatuko da. Hauek dira funtzionalitate berritzaileetako batzuk: kanpainak mantentzeko modulua, bisitak kudeatzeko modulua, EKUNETen eta enpresa-kudeatzailearen arteko datuen lekualdaketa...

7) Kontratazio prozesuaren kudeaketa operatiborako laguntzaile bat garatzea (sailaren mailan):

2025ean, hasi egin da kontratazioari, eta, bereziki, sailaren kontratu txikiei lotutako administrazio-prozeduren garapena. Horien barruan sartzen dira aurretiko administrazio-baimenen kudeaketa eta legezko mugaren kontrola, kontratistaren, kontratu-motaren eta organo kontratatzailearen araberakoa.

2026an, GESFAKTUR aplikazioa Ekunet-era migratu da, bai eta oraindik migratu gabe zeuden Access datu-base batzuk ere.

2027ko lehen seihilekorako, aplikazioaren 1. bertsioa edukitzea eta Access datu-base guztiak migratuta egotea espero da.

8) Hobekuntzak aplikazioen erabilgarritasunean

Horregatik, 2027rako honako hauek egin nahi ditugu:

6) Desarrollo de aplicaciones que faciliten la gestión del conocimiento en el Departamento.

En diciembre de 2026 se prevé que concluya el desarrollo de la versión 1 del proyecto de gestor de empresas departamental, (software de gestión de relaciones con clientes según sus siglas en inglés). En 2027 continuará su despliegue con muchas más funcionalidades y con su conexión a la nueva versión del REPPE. Como funcionalidades novedosas se incluirán el módulo para el mantenimiento de las campañas, el módulo para la gestión de visitas, traspaso de datos entre EKUNET y el gestor de empresas.

7) Desarrollo de un asistente para gestión operativa del proceso de contratación (nivel departamental):

En 2025 ha comenzado el desarrollo de la familia de procedimientos administrativos relacionados con la contratación, contratos menores del departamento, que incluye la gestión de autorizaciones administrativas previas y el control del límite legal por contratista, tipo de contrato y órgano contratante.

En 2026 se ha desarrollado la migración de la aplicación GESFAKTUR a Ekunet, así como la migración de algunas BBDD Access que faltan por migrar a Ekunet.

Para el primer semestre de 2027 se espera tener la versión 1 de la aplicación con todas las BBDD Access migradas.

8) Mejoras en usabilidad de aplicaciones

Por ello para 2027 nos proponemos:

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
08. Ekonomia Sustapena ***08. Promoción Económica***	**01.** Zerbitzu Nagusiak **01.** *Servicios Centrales*	**920.110** Foru plan informatikoa **920.110** *Plan Informático Foral*

- Diseinu fasea bukatu eta gero, administrazio-espedienteen hiru dimentsiotako bisorearen ezarpena amaituko dugu , xehetasun-maila desberdinekin eta erabiltzaile motaren araberako aldaerekin.

- 2022an denbora lerroa gehitu zitzaion 3D bisoreari, modu horretan “filma” edo elkarri lotutako administrazio egintzen segida eta parte-hartzaileak nortzuk izan diren berrikusi ahal izateko. Hala ere, gure esperientziaren arabera, handitu egin behar da administrazio izapidetzeko aldi guztiekin lotutako kasu guztiak barne hartzeko: luzapenak, eteteak eta abar.

- Una vez concluida la fase de diseño, concluiremos la implantación del visor de expedientes administrativos en tres dimensiones, con diferentes niveles de detalle, y con variantes según el tipo de persona usuaria.

- Se incorporó en 2022 la línea de tiempo al visor 3D de modo que se pueda revisar la “película” o sucesión de actos administrativos enlazados y quiénes han sido los actores participantes. Sin embargo, con la experiencia adquirida, se considera que debe ampliarse para incluir toda la casuística relacionada con los tiempos de tramitación administrativa: prórrogas, suspensiones, etc.

Helburu eta Ekintzen Sail eta Egitarauka - GASTUAK
Objetivos y Acciones por Departamento y Programa - GASTOS

Saila , Zentru Kudeat. eta Programa / Departamento, Centro Gestor y Programa

08	**Ekonomia Sustatzeko** ***Promoción Económica***
0801	**ZERBITZU NAGUSIAK** ***SERVICIOS CENTRALES***
920110	**FORU PLAN INFORMATIKOA** ***PLAN INFORMATICO FORAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Acción e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Aurreikusia / *Previsión*
1	**SAILAREN KUDEAKETA HOBETZEA EUSKARRI INFORMATIKOEN BIDEZ** ***MEJORAR LA GESTION DEL DEPARTAMENTO MEDIANTE SOPORTES INFORMATICOS***	
1	APLIKAZIOEN GARAPENA, MANTENTZE-LANA ETA LAGUNTZA INFORMATIKAKO ARLO DESBERDINETAN *DESARROLLO DE APLICACIONES, MANTENIMIENTO Y ASISTENCIA EN INFORMÁTICA EN DIFERENTES MATERIAS*	
1	Aplikazioen eta web-orrien mantentze eta egokitzeko emandako orduak *Horas de matenimiento y adaptaciones al ejercicio de aplicaciones y páginas web.*	20.000
2	Bezeroak fidelizatzeko eta laguntzeko orduak *Horas de fidelización y asistencia clientes*	3.000
2	EKIPOAK BERRITZEA *RENOVACIÓN DE LOS EQUIPOS*	
1	Berrituko diren ekipoen % /ekipoen kopuru osoa *% Equipos a renovar / total equipos.*	10
2	**ERABILTZAILEARI APLIKAZIO INFORMATIKOEN ERABILERAN ARRETA EGOKIA EMATEN ZAIOLA BERMATZEA** ***GARANTIZAR LA ADECUADA ATENCION AL USUARIO EN EL USO DE LAS APLICACIONES INFORMATICAS***	
1	BARNE CAU-N EGINDAKO KONTSULTEN JARRAIPENA *SEGUIMIENTO DE CONSULTAS AL CAU INTERNO*	
1	Barnen CAU laguntzako orduen kopurua *Horas de asistencia CAU interno*	1.300